

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Urdiñarbe

Aurkibidea

Udalerria: Urdiñarbe

Sarrera



Urdiñarbe Zuberoako mendebaldean dagoen udalerria da, Arbaila eskualdean kokaturik dagoena. Udalerri hauekin egiten du muga: Lohitzüne- Oihergi eta Ainharbe iparraldean, Altzürükü hegoaldean, Garindaine, Gotaine- Irabarne eta Idauze-Mendi ekialdean eta Pagola eta Muskildi mendebaldean. Urdiñarbe, antzina, Orreagako abadetxearen menekoa zen enkomienda izan zen. Uhaitzandi ibaia udalerritik igarotzen da, bertara isurtzen den Arangorena errekaekin batera (baita azken honen ibaiadarra den Abarakia erreka ere).

- **Biztanleak:** 528
- **Euskaldunak:** %59,03

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **5**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak

Hizlariak


Erramun Barreix (1924)



Muskildin sortua (Naphal aldean, Muskildiko partean), Kleinategia etxean. Aita Joanes Barreix zen, Urdiñarbe herriko Sallaberrenborda etxekoa; zorrek etxea salarazi zieten. Lehen Mundu Gerran hartu zuen parte. Ama Naphalen sortua zen, Bordagai etxean. Etxezain ziren Kleinategian, eta 1930ean Urdiñarbeko Erregia etxera joan ziren. Aitak etxaldean lan egiten zuen, bai eta kanpoan, jurnalean. Hamabi senidetan gazteenetakoa zen Erramun, hamargarrena. Sei seme eta sei alaba ziren. Haur zelarrik, begi bat galdu zuen istripuz. Jaunartzea egindakoan, eskola utzi eta arreba baten etxera joan zen mutil. Etxaldera itzuli zen gero, eta etxean lan egiteaz gainera baso lanetan eta bide arraberritzen ibili zen inguruetan; anaia bat eskalapuño zen ofizioz. Erramunen hiru anaik II. Mundu Gerlan parte hartu zuten. 1952an Lurdes (Lourdes) herrira joaten hasi zen, sasoinaren egitera (Moderne ostatuan baxera egiten eta "brozür" bezala). 1954an Lurdes ondoko jauregi batean lana aurkitu zuen guarda pribatu bezala. Garaibiko [Luisa Caset](#)ekin ezkondu zen bertara, eta bost haur izan zituzten. 1969an Garaibira joan ziren bizitzera; han ostatu bat atxiki zuten, eta Erramunek Mauleko fabrika batean lan egin zuen. Emaztearekin batera elkarriketatu dugu.

Michel Barreix

Luisa Caset Barreix (1933)



Urdiñarbe herriko Garaibi auzoan jaioa, Etxebestia etxean. Johaño Caset zuen aita, eta etxaldekoa zen. Ama Altzürükün sortu zen; Esquer zuen deitura eta Karrikirriborda etxekoa zen. Laborariak ziren. Zortzi senidetan hirugarrena zen Luisa; bigarrena hiru hilabete zituela zendu zen. 13 urterekin utzi zuen eskola. 1953an Lurdesera joan zen sasoinaren egitera. 1957an [Erramun Barreix](#)ekin ezkondu zen, Lourdes ondoko jauregi batera (senarrak bertan egiten zuen lana) eta elgarrekin 5 haur ukan zituzten. 1969an Garaibira joan ziren bizitzera. Han ostatu bat atxiki zuten, eta Luisak bertan egin zuen lana; senarrak, berriz, Mauleko fabrika batean. Senar-emazteak elgarrekin elkarriketatu ditugu.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com